

ALKATETZA DEKRETUA / DECRETO DE ALCALDÍA

Ostalaritzarako dirulaguntzerako oinarri arautzaileak onartu ditu 2021eko otsailaren 16ko 595 Dekretuak —eta 2021eko martxoaren 3ko 42 zenbakidun BAOn argitaratu dira—.

Horren harira, Atalburuaren aldeko txostena ikusita, Alkateak honako hau XEDATU DU, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legearen 21. artikulua eta indarreko gainerako legeriak emandako eskumenak baliatuta:

**LEHENENGOA:** Honako hauetarako gastua baimentzea, adierazitako partidaren kontura:

Habiéndose aprobado las bases reguladoras de las Ayudas a la hostelería 2021 por Decreto de Alcaldía 595 del 16 de febrero de 2021, y publicado en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 42 de 3 de marzo de 2021.

Desde esta Alcaldía, teniendo en cuenta el informe favorable de la Jefa de Sección y en virtud de las competencias que le otorga el artículo 21 de la Ley 7/85 Reguladora de las Bases de Régimen Local y demás legislación vigente se **DISPONE** lo siguiente:

**PRIMERO.-** Autorizar el gasto por los siguientes conceptos y con cargo a la partida que se indica:

Partidaren deskribapena / Descripción de la partida	Partida	Eragiketa Zk. Nº Operación	Zenbatekoa Importe
T. Arr. Ostalaritza. COVID-19 KRISIRAKO NEURRIAK T. Cor. a la Hostelería. MEDIDAS CONTRA CRISIS COVID-19	33 4310 47101	220210000251 220210001129	22.000,00 € 128.000,00 €

Aurrekontu-partida egokitu da gaur egungo antolaketa organikora (zeina Udalaren antolaketaren ondorio baita). Baimendutako zenbatekoa ez da aldatu, eta alde ekonomikoa eta programarena ere bere horretan mantendu dira.

**BIGARRENA:** 2021eko merkataritzarako dirulaguntzen deialdia onestea, 15 egun naturaleko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera. 595/2021 dekretuaren bidez onartutako eta 2021eko martxoaren 3ko 42 zenbakidun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratutako oinarri arautzaileetan ezarritakoaren arabera.

Laguntza horiei buruzko gainerako alderdi guztiak l. eranskinaren arabera arautuko dira.

**HIRUGARRENA:** Deialdia argitaratu dadila, bai Bizkaiko Aldizkari Ofizialean —Dirulaguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez—, eta baita Basauriko Udalaren iragarki-taulan eta webgunean ere.

Se adapta la partida presupuestaria a la configuración orgánica actual resultante de la nueva organización del Ayuntamiento, no variando el importe autorizado, y manteniendo la parte económica y de programa.

**SEGUNDO:** Aprobar la convocatoria para la concesión de ayudas a la hostelería 2021, cuyo plazo de presentación de las solicitudes será de 15 días naturales comenzando a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia, de acuerdo con las bases generales aprobadas por Decreto de Alcaldía 595/2021 y publicadas en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 42 de 3 de marzo de 2021.

Todos los demás aspectos relativos a las citadas ayudas se regularán según el Anexo I.

**TERCERO.-** Ordenar la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia a través de la Base de Datos Nacional de Subvenciones, así como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Basauri y en la web municipal.

ALKATEA / EL ALCALDE  
(Digitalki sinatua / Firmado digitalmente)

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): 219ec748b782421024121cb88737d510542556d3  
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: PREDEC-2021001013  
<https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

ASIER IRAGORRI BASAGUREN

Data / A día:

12/03/2021 08:11:58



## ANEXO I

### 1.- OBJETO

Es objeto de las presentes bases, la regulación de la convocatoria en régimen de concesión directa, de las ayudas económicas extraordinarias que el Ayuntamiento de Basauri otorga con el fin de contribuir al mantenimiento de la actividad de los establecimientos hosteleros minoristas ubicados en el municipio de Basauri y paliar la situación de pérdida económica, ya que sus actividades fueron suspendidas como consecuencia de la publicación del Decreto 38/2020 de 6 de noviembre del Lehendakari en el que se determinaba el cierre total para el servicio a las personas de los establecimientos y servicios de hostelería y restauración, con excepción de la preparación y servicio de comidas a domicilio o con cita previa.

### 2.- ÁMBITO DE APLICACIÓN

Las ayudas reguladas en las presentes bases irán destinadas a financiar parcialmente y de manera extraordinaria las pérdidas de los establecimientos hosteleros minoristas ubicados en Basauri.

### 3.- BENEFICIARIOS

- a) Podrán ser beneficiarias de las ayudas que contemplan las presentes bases, las personas físicas o jurídicas o comunidades de bienes pertenecientes al sector de la hostelería de Basauri, dividiéndose en dos grupos diferenciados:

1.- Establecimientos que en cumplimiento del Decreto 38/2020 mantuvieron el cierre total de su establecimiento.

2.- Establecimientos que en cumplimiento del Decreto 38/2020 mantuvieron el cierre parcial de su establecimiento ofreciendo servicio a domicilio o con cita previa.

b) Tener la consideración de pequeña empresa. En este sentido y siguiendo la Recomendación 2003/361/CE de la Comisión Europea, tendrán esta consideración las que tengan su sede social en Basauri y de forma excepcional empresas o comercios con sede social en otros municipios, cuyo proyecto de desarrollo empresarial implique su ubicación en el municipio de Basauri, que su plantilla no supere los 50 trabajadores y que su volumen de negocios anual o su balance general no supere los 10 millones de euros. Para la determinación de los datos de la empresa se tendrá en cuenta si se trata de una empresa autónoma o si, de acuerdo con los criterios de la recomendación, concurre en ella, la condición de empresa asociada o vinculada. En tales casos, el cálculo para la determinación de datos se realizará de conformidad con lo dispuesto en el artículo 6 de la recomendación 2003/361/CE.

c) Encontrarse al corriente de sus obligaciones frente a las diferentes Administraciones públicas con las que tengan exigencias de carácter tributario, así como al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social. La situación tributaria respecto del Ayuntamiento de Basauri será comprobada de oficio por el Departamento de Comercio.

En caso de las comunidades de bienes o sociedades civiles, todas y cada una de las personas físicas o jurídicas privadas que participan en ellas tendrán la consideración de personas beneficiarias, debiendo cumplir todas ellas los requisitos y condiciones establecidas en las presentes bases.

d) Estar constituidas y con actividad en funcionamiento antes de la declaración del estado de alarma de 25 de octubre de 2020, tomando como fecha inicial la del alta en el impuesto de Actividades económicas.

En el supuesto de modificaciones de titularidad de la actividad comercial, bien sea por transmisión o sucesión de la misma, por cambio en su forma jurídica o porque se independice de una empresa preexistente, no se iniciará un nuevo cómputo, sino que se mantendrá el que se hubiera iniciado antes de dicha modificación. Únicamente se atenderán los casos en que la modificación de la titularidad comercial se produzca por sucesión familiar o a los trabajadores, o por un cambio de forma jurídica que implique el cambio de titularidad. Por el contrario no se aceptarán los cambios de forma jurídica por motivos fiscales, jurídicos o personales en el caso de que se sigan manteniendo los propietarios.

### 4.- EXCLUSIONES

1.- Se considerarán entidades excluidas los Entes y Sociedades Públicas y/o entidades pertenecientes a las Administraciones, así como a las Asociaciones o agrupaciones, a excepción de las A.I.E y U.T.E.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **219ec748b782421024121cb88737d510542556d3**  
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **PREDEC-2021001013**  
<https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

**ASIER IRAGORRI BASAGUREN**

Data / A día:

**12/03/2021 08:11:58**



## 5.- CUANTÍA DE LAS SUBVENCIONES

Las ayudas económicas estarán destinadas a subvencionar parcialmente las pérdidas sufridas por los hosteleros minoristas ubicados en Basauri, cuyas actividades han quedado suspendidas o gravemente afectadas a consecuencia de la declaración del estado de alarma, siempre y cuando cumplan los requisitos para ser beneficiarias.

Estas ayudas tienen la consideración de subvención no reintegrable.

La cuantía de la ayuda a conceder a la persona física o jurídica beneficiaria se establece en función de si el establecimiento tuvo cierre total o fue parcial ofreciendo servicio a domicilio o con cita previa:

- Cierre Total – 575 €
- Cierre Parcial – 400 €

## 6.- PRESENTACIÓN DE LAS SOLICITUDES

Los/las interesados/as deberán presentar el formulario de solicitud debidamente cumplimentado mediante certificado digital, que estará disponible en la sede electrónica, así como los documentos que se requieran para su presentación por parte de los/las interesados/as, o bien mediante cualquiera de las formas autorizadas por la Ley 39/2015, de 1 de diciembre, e implicará la aceptación del contenido de las bases

El medio de comunicación con la empresa solicitante será el correo electrónico o teléfono que haya indicado en su solicitud.

## 7.- PLAZO DE PRESENTACIÓN

1.- El plazo de presentación de las solicitudes será de 15 días naturales comenzando a partir del día siguiente al de la publicación de la presente convocatoria en el Boletín Oficial de Bizkaia.

## 8.- DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR

1.- Las solicitudes deberán ir acompañadas de:

a) Declaración jurada relativa al cumplimiento de los requisitos que definen a la pequeña empresas, tal y como se contempla en el artículo 3 de estas bases. A este respecto, cumplimentarán el documento que se contiene como Anexo II de las Bases.

b) Los certificados libres de cargas de las administraciones serán sustituidos, por la declaración responsable correspondiente facilitada por el Ayuntamiento, ya que la subvención a otorgar no supera los 3.000 €.

c) Fotocopia del documento que acredite la representación que ostenta la persona solicitante, en el caso de Sociedades, así como Fotocopia del CIF de la Sociedad y del DNI o permiso de trabajo de la persona física.

d) El interesado deberá indicar el número de cuenta corriente a nombre del beneficiario de la subvención en la que desee que se realice el ingreso. En el caso de que su entidad bancaria no esté adherida a la plataforma de pagos del Gobierno Vasco deberá aportar Ficha de acreedor sellada por la entidad financiera o bien acompañada por certificado bancario de titularidad, excepto en el caso de que dicho documento ya hubiera sido presentado en el ayuntamiento con anterioridad, en cuyo caso indicará en qué momento y ante qué órgano administrativo lo presentó.

En el caso de que el beneficiario sea una Comunidad de Bienes la cuenta deberá estar a nombre de la misma.

e) Declaración responsable de no estar incurso en ninguna de las prohibiciones recogidas en el artículo 10 de la ordenanza municipal reguladora de la concesión de subvenciones, según Anexo IV.

2.- En el caso de la falta de presentación de la documentación o que no se presente toda la documentación solicitada, el Ayuntamiento de Basauri, requerirá a la empresa o comercio para que subsane las omisiones. Para ello se concederá al solicitante un plazo de diez días hábiles a contar desde el recibo de la notificación, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 68 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre de procedimiento administrativo

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): <b>219ec748b782421024121cb88737d510542556d3</b> Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: <b>PREDEC-2021001013</b> <a href="https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do">https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do</a>	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
<b>ASIER IRAGORRI BASAGUREN</b>	<b>12/03/2021 08:11:58</b>



común de las Administraciones públicas. Transcurrido dicho plazo, sin presentar la documentación, se tendrá al solicitante por desistido en su solicitud de ayuda, procediéndose al archivo de la misma.

Asimismo el Ayuntamiento de Basauri, podrá solicitar la documentación adicional que considere necesaria para comprobar que la empresa o persona solicitante cumple las condiciones exigidas para tomar parte en el presente plan de ayudas, este procedimiento, se remitirá a través de la dirección de correo electrónico facilitada por el solicitante de la subvención.

#### 9.- OBLIGACIONES DE LAS EMPRESAS BENEFICIARIAS

Las personas físicas o jurídicas beneficiarias de estas ayudas estarán obligadas a:

a) Someterse a las actuaciones de comprobación del Ayuntamiento de Basauri, así como a las de control financiero correspondientes.

b) Ejercer la actividad económica en el establecimiento objeto de ayuda durante **al menos un año** a partir de la fecha de concesión de las subvenciones. En el caso de cierre del establecimiento en el plazo inferior al señalado, la empresa beneficiaria deberá comunicar al Ayuntamiento ese cierre y deberá proceder al reintegro o devolución de la subvención concedida, en una parte proporcional al tiempo pendiente de transcurrir desde la fecha del cese de la actividad, hasta la fecha en que se hubiera completado el año.

#### 10.- CONSIGNACIÓN PRESUPUESTARIA

El Ayuntamiento de Basauri destinará, durante el ejercicio 2021, 22.000 euros ampliables hasta los 150.000 euros para las dotaciones económicas de esta convocatoria, con cargo a la siguiente partida: 33 4314 47101 / T. COR. HOSTELERÍA MEDIDAS CRISIS COVID 19

#### 11.- PAGO Y JUSTIFICACIÓN DE LAS AYUDAS

La justificación de estas subvenciones y el cumplimiento de su finalidad se considerarán realizadas mediante la presentación de toda la documentación exigida en estas bases, por lo que una vez resuelta la concesión de la subvención se tramitará el pago de la misma a la persona beneficiaria.

El pago de la subvención se realizará en un pago único por la totalidad del importe concedido, mediante transferencia bancaria, a partir de la fecha de la resolución de concesión. No podrá realizarse el mismo en tanto la persona beneficiaria no se halle al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias por deudas vencidas, liquidas y exigibles

La subvención concedida será compatible con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualquier administración o ente público o privado, nacional, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

#### 12.-NORMATIVA APLICABLE

El procedimiento se regulará por las propias bases reguladoras aprobadas, por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre General de Subvenciones, y por su reglamento de desarrollo y la Ordenanza para la concesión de subvenciones municipales en vigor.

#### 13.- CONFIDENCIALIDAD DE LA INFORMACIÓN DE LOS BENEFICIARIOS/AS

El Ayuntamiento de Basauri asume el compromiso de que la información sobre los/as beneficiarios/as de estas ayudas no será utilizada para ningún fin diferente al del propio ámbito del programa.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **219ec748b782421024121cb88737d510542556d3**  
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **PREDEC-2021001013**  
<https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

**ASIER IRAGORRI BASAGUREN**

Data / A día:

**12/03/2021 08:11:58**



## I. ERANSKINA

### 1.- XEDEA

Oinarri hauen xedea da arautzea Basauriko Udalak zuzenean emango dituen ezohiko laguntza ekonomikoak banatzeko deialdia. Laguntza horien helburua da Basauriko udalerrian kokatutako txikizkako ostalaritza-establezimenduei beren jarduera mantentzen laguntzea eta bizi duten galera ekonomiko egoera arintzea —izan ere, Lehendakariaren azaroaren 6ko 38/2020 Dekretuak agindu zuen ostalaritzaren jarduera eteteko, alegia, ostalaritza-establezimenduak eta jatetxeak bezeroentzako guztiz itxita egon zitezela (etxera eramateko zerbitzua eta aurretiazko hitzordu bidezkoa salbu)—.

### 2.- APLIKAZIO-EREMUA

Oinarri hauetan araututako laguntzen helburua izango da Basaurin kokatutako txikizkako ostalaritza-establezimenduen galerak finantzatzea, partzialki eta salbuespenez.

### 3.- ONURADUNAK

- a) Oinarri hauetan jasotako laguntzak jaso ahalko dituzte Basauriko ostalaritzan diharduten pertsona fisiko zein juridikoek eta ondasun-erkidegoek. Horren harira, bi talde bereizten dira:

1.- 38/2020 Dekretuak xedatutakoa betetzeko, erabat itxita egon diren establezimenduak.

2.- 38/2020 Dekretuak xedatutakoa betetzeko, partzialki itxita egon eta etxeko zerbitzua edo aurretiazko hitzordu bidezkoa eman duten establezimenduak.

b) Enpresa txikia izatea. Zentzu horretan, eta Europako Batzordearen 2003/361/CE Gomendioari jarraituta, enpresa txikiak izango dira honako baldintza hauek betetzen dituztenak: egoitza soziala Basaurin izatea edo, salbuespenez, egoitza soziala beste udalerrri batzuetan izan arren, enpresa garatzeko proiektuan kokapena Basaurin izatea aurreikustea; gehienez ere 50 langile edukitzea; eta urtean 10 milioi eurotik beherako negozio-bolumena edo balantze orokorra izatea. Enpresaren datuak zehazteko, aintzat hartuko da ea enpresa autonomia den ala, Gomendioaren irizpideen arabera, mendeko enpresa edo enpresa elkartua den. Horrelakoetan, datuak zehazteko kalkulua 2003/361/CE Gomendioaren 6. artikulua xedatutakoaren arabera egingo da.

Establezimenduak 10 langile baino gutxiago edukitzea eta Basauriko udal mugartean egotea.

c) Herri Administrazioekiko zerga-zorrik ez izatea, eta, era berean, egunean egotea Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan. Merkataritza Atalak egiaztatuko du, ofizioz, ea Basauriko Udalarekiko zerga-zorrik dagoen ala ez.

Ondasun-erkidegoen edo sozietate zibilen kasuan, joko da bertan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak onuradunak direla, eta, beraz, guztiek bete behar dituztela Oinarri hauetan ezarritako baldintzak.

d) Eratuta eta jardunean egotea 2020ko urriaren 25ean ezarritako alarma-egoera baino lehen. Hasiera-data izango da ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emateko eguna.

Merkataritza-jardueraren titulartasuna aldatzen bada jarduera eskualdatu delako edo oinordetza-kontuak tarteko direlako, bere forma juridikoa aldatzen delako edo jarduera lehenagotik zegoen enpresa batengandik bereizi delako, ez da berriro zenbatzen hasiko: eutsi egingo zaio aldaketa gertatu aurretik hasitako zenbaketari. Merkataritza-jardueraren titulartasun-aldaketa onartuko da, bakar-bakarrik, familiazko oinordetza edo langileei egindako oinordetza bada, edo, bestela, titulartasun-aldaketa dakarren forma juridikoaren aldaketa bat bada. Aitzitik, ez dira zerga-arrazoiengatik, zio juridikoengatik edo arrazoi pertsonalengatik forma juridiko aldaketak onartuko, baldin eta jabeak berdinak badira.

### 4.- KANPO UTZITAKOAK

1.- Ulertuko da kanpo daudela Administrazioaren erakunde, sozietate publiko edo elkarteak, eta elkarte edo taldeak ere bai, interes ekonomikoko erakundeak eta aldi baterako enpresa-elkarteak salbu.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): <b>219ec748b782421024121cb88737d510542556d3</b> Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: <b>PREDEC-2021001013</b> <a href="https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do">https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do</a>	
Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:	Data / A día:
<b>ASIER IRAGORRI BASAGUREN</b>	<b>12/03/2021 08:11:58</b>



## 5.- DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzen xedea izango da Basaurin kokatutako txikizkako ostalariek izandako galeren zati bat diruz laguntzea. Alegia, laguntza ekonomikoa ematea alarma-egoera ezarri izanaren ondorioz jarduera eten zaien edo beren jardunean eragin sakona jasan duten ostalariei, baldin eta onuradun izateko baldintzak betetzen badituzte.

Ematen diren dirulaguntzak ez dira itzuli behar izango.

Pertsona fisiko edo juridiko onuradunari eman beharreko zenbatekoa ezarriko da aintzat hartuta ea establezimendua erabat ala partzialki itxita (eta etxeko zerbitzua edo aurretiazko hitzordu bidezkoa ematen) egon den:

- Erabat itxita egon diren establezimenduen kasuan: 575 €.
- Partzialki itxita egon diren establezimenduen kasuan: 400 €.

## 6.- ESKABIDEAK AURKEZTEA

Interesdunek eskaera-inprimakia aurkeztu beharko dute, ziurtagiri digital bidez behar bezala beteta. Inprimakia eskuragarri egongo da egoitza elektronikoa, eta interesdunek aurkeztu beharreko gainerako dokumentazioa ere bai eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak aurreikusitako tokietan. Bestalde, eskabidea aurkeztuz gero, joko da eskatzaileak onartu egiten duela Oinarri hauetan ezarritakoa.

Enpresa eskatzailearekin komunikatzeko, eskatzaileak adierazitako helbide elektronikoa edo telefono-zenbakia erabiliko dira.

## 7.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

1.- 15 egun naturaleko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

## 8.- AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- Eskabideei honako dokumentu hauek erantsi beharko zaizkie:

a) Enpresa txikiaren ezaugarriak betetzen direla jasotzen duen zinpeko aitorpena, Oinarri hauen 3. artikuluan jasotzen den bezalaxe. Zentzu horretan, Oinarriotako II. Eranskinean agertzen den dokumentua bete beharko dute eskatzaileek.

b) Administrazioekin zerga-zorrik ez izateari buruzko ziurtagirien orde, Udalaren ereduaren arabeko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, emango den dirulaguntza 3.000 €-tik beherakoa da-eta.

c) Sozietateen kasuan, eskatzailearen ordezkari eta egiaztatzen duen agiriaren fotokopia, sozietatearen IFKrena eta pertsona fisikoaren NANarena edo lan-baimenarena.

d) Interesdunak adierazi beharko du dirulaguntzaren onuradunaren izenean dagoen zein kontu-zenbakitan nahi duen jaso diru-sarrera. Banku-erakundea ez badago Eusko Jaurlaritzaren ordainketa-plataforman, hartzekodun-fitxa aurkeztu beharko du, finantza-erakundeak zigilatuta edo titulartasuna jasotzen duen banku-agiriz lagunduta, ez bada dokumentu hori lehenago Udalean aurkeztu dela (kasu horretan, adierazi beharko du noiz eta zein administrazio-organori aurkeztu zion).

Onuraduna ondasun-erkidego bat bada, kontua erkidego horren izenean egon beharko da.

e) Basauriko udal dirulaguntzak emateko Ordenantzen 10. artikuluan ezarritako debekurik ez dagoela jasotzen duen erantzukizunpeko aitorpena, IV. Eranskinaren arabera.

2.- Ez bada dokumentazioa aurkeztzen, edo eskatutako guztia aurkeztzen ez bada, Basauriko Udalak errekerimendua egingo dio enpresa edo merkataritza-establezimenduari, akatsak zuzen ditzan. Eskatzaileak hamar egun balioduneko epea izango du akats horiek zuzentzeko, jakinarazpena jasotzen duen datatik zenbatzen hasita. Hala xedatzen du Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **219ec748b782421024121cb88737d510542556d3**  
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **PREDEC-2021001013**  
<https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

**ASIER IRAGORRI BASAGUREN**

Data / A día:

**12/03/2021 08:11:58**



urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua. Epe hori igarota dokumentaziorik aurkeztu ez bada, joko da eskatzaileak atzera egin duela, eta bere eskabidea artxibatu egingo da.

Halaber, Basauriko Udalak beharrezkotzat jo dezakeen dokumentazio gehigarria eskatu ahalko du, enpresa eskatzaileak laguntza-planean parte hartzeko eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko. Dokumentazio gehigarri hori eskatuko da dirulaguntzaren eskatzaileak emandako helbide elektronikoaren bitartez.

## 9.- ENPRESA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntza hauek jasotzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoek honako betebeharrak izango dituzte:

a) Basauriko Udalak egin ditzakeen egiaztatze-jarduerak eta dagozkion finantza-kontrol jarduerak onartzea.

b) Dirulaguntza jaso duen establezimenduan ekonomia-jarduera egotea, gutxienez, **urtebetez**, dirulaguntzak eman ziren datatik zenbatzen hasita. Establezimendua adierazitako epea baino lehenago itxiz gero, enpresa onuradunak Udalari hala jakinarazi, eta emandako dirulaguntzaren zati proportzionala itzuli beharko dio — jarduera eten denetik urtebetea amaitu arte doan zatia, alegia—.

## 10.- AURREKONTU-IZENDAPENA

Basauriko Udalak, 2021eko ekitaldian zehar, 22.000 euro bideratuko ditu deialdi honetako dirulaguntzetara, eta zenbateko hori 150.000 euroraino handitu ahalko da. Laguntzak, bestalde, honako partida honen kontura izango dira: 33 4314 47101/TRANSF. ARR. OSTALARITZA, COVID-19 KRISIRAKO NEURRIAK.

## 11.- LAGUNTZAK ORDAINTZEA ETA JUSTIFIKATZEA

Dirulaguntza hauen eta beren xedea bete izanaren justifikazioa egiteko, Oinarriotan aurreikusitako dokumentazioa aurkeztu beharko da. Hala egin, eta dirulaguntza ematea ebatzi eta gero, onuradunari dagokion zenbatekoa ordaintzeko izapideei ekingo zaie.

Emandako zenbatekoa ordainketa bakarrean pagatuko da. Banku-transferentzia bidez egingo da, dirulaguntza emateko ebazpena eta gero. Dirulaguntza ezingo da ordaindu onuradunak bere zerga-zorrak eta iraingitako zorrak —likidoak eta galdagarriak— kitatu arte.

Emandako dirulaguntza bateragarria izango da Estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede bererako emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekina.

## 12.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

Prozedura arautuko dute onetsitako Oinarri Arautzaile hauek; dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta berau garatzen duen Erregelamenduak; eta udal dirulaguntzak emateko indarreko Ordenantzak.

## 13.- ONURADUNEI BURUZKO INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA

Basauriko Udalak bere gain hartzen du dirulaguntza hauen onuradunei buruzko informazioa programaren eremutik kanpoko xedeetarako erabilia izango ez dela bermatzeko konpromisoa.

Egiaztapen kodea (CSV) / Código de verificación (CSV): **219ec748b782421024121cb88737d510542556d3**  
Erreferentzia-zenbakia / N. Referencia: **PREDEC-2021001013**  
<https://tramiteak.basauri.eus/impulsa/csvValidation.do>

Jatorrizko dokumentuaren sinadurak / Documento original firmado por:

**ASIER IRAGORRI BASAGUREN**

Data / A día:

**12/03/2021 08:11:58**

